



Arartekoaren 2018R-2405-17 Ebazpena, 2018ko irailaren 24koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatu diogu ondorioz gabe utz dezala aitortutako atzerakinen zenbateko osoarekiko konpentsazioa, eta Gizarteratzeko eta Diru-Sarrerak Bermatzeko araudian jasotako zenbatekoa bakarrik konpentsa dezala, bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko baldintzak ezartzen dituen zirkularrean adierazitako legezko mugei eta irizpideei jarraituz.

Aurrekariak

Arartekoak aurretik ere izapidetu ditu antzeko gaiak hizpide dituzten kexa ugari, hau da, Lanbidek zorrak konpentsatzeko duen moduarekiko desadostasuna agertzen dutenak. Espediente horietan, erakunde autonomoak zorra zuen titularrekin, askotariko arrazoiak zirela medio, bai diru-sarrerak bermatzeko errenta eta, hala bazegokion, etxebizitzarako prestazio osagarria aitortzeko eskaera egin eta hilabete batzuetara aitortu edo berrabiarazi zituelako prestazio horiek, bai diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria eteteko edo ukatzeko ebazpen baten aurka jarritako aukerako berraztertze errekurtsoa baietsi zuelako. Gainera, kasu horietan guztietan, prestazioen titularrek ere zorra zuten, prestazioak bidegabe jaso zituztela-eta.

Lanbidek jakinarazi du zer konpentsazio egin duen diru-sarrerak bermatzeko errenta eta, hala badagokio, etxebizitzarako prestazio osagarria aitortzeko edo berritzeko ebazpenetan. Hauxe adierazi du ebazpen horietan: *“Titularra zaren edo izan zaren DBE espedienteen barruan itzulketa-ebazpen batzuk eman dira; horien bidez adierazi da bidegabeki jasotako diru kopuru batzuk itzuli egin behar direla. Ebazpen horiek exekutiboak dira, 39/2015 Legearen (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) 98. Artikuluan xedatutakoaren arabera, beraz, ebazpen honen bitartez aitortzen zaizkizun atzerakinetatik xxxx euroko diru kopurua konpentsatuko da ofizioz, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren (diru-sarrerak bermatzeko errenta arautzen duena) 57. Artikulua eta urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuaren (etxebizitzarako prestazio osagarria arautzen duena) 35. Artikulua aplikatuta”.*

Arartekoak izapidetu egin ditu aurreko kexak, eta jokatzeko era horri buruzko informazioa eskatu dio Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari. Horrez gain, esan diogu txosten bat bidaltzeko, eta bere iritzia adierazteko han. Gainera, alde aurretiko gogoeta batzuk helarazi dizkiogu baina jarraian jasoko ditugunez, ez ditugu errepikatuko.

Bi erakundeetako langileen arteko bilera batean aztertu eta eztabaidatu zen kexa honek hizpide duen arazoa.

Arartekoak egindako eskaerari erantzunez, Lanbidek hauxe erantzun zuen erakunde horretako zuzendari nagusiaren txostenaren bidez:





“Jasotako idazkia aztertuta, Lanbidek berretsi egiten du urrian izandako bileran azaldutako jarrera. Beraz, Lanbiden irizten diogu justifikatuta dagoela ebazpen irmoa duen zorraren konpentsazioa, kudeaketa-prozeduretan sortutako atzeratutako zorrekin batera, 147/2010 Dekretuaren 57.4 artikulua oinarri hartuta.”

Gogoetak

1. Ebazpen honek aztertzen du Lanbidek egindako konpentsazioa zuzenbidearekin bat ote datorren, bai eta konpentsazio hori nola kalkulatu ari den ere.

Lanbide prestazioa aitortzeko edo berritzeko eskaera egin zenetik (edo, hala badagokio, aukerako berraztertze errekurtsoa baietsi zenetik) aitortutako prestazioa (atzerakinak) ordaindu arte sortutako kreditua konpentsatzen ari da bizikidetzaren unitate horrek —aurretik bidegabe jasotako prestazioengatik— duen zorrarekin.

Baliteke zor hori etete- edo iraungitze-prozedura baten ondorioz sortu izana, edo, bestela, obligaziodunak zegokion epean jakinarazitako diru-sarrerak jakin batzuk aintzat hartzerakoan izandako atzerapenaren ondorioz. Gogorazi beharra dago prestazioak zenbatekoa eguneratu gabe ordaintzeak zor bat sortzen duela, eta hori itzul daitekeela konpentsazio bidez, baldin eta pertsona hori prestazioen titular bada, edo, bestela, zenbateko hori adostutako moduan sartuz (zenbateko osoa behingoan ordainduta, edo zatikatuta).

2. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen (aurrerantzean, 18/2008 Legea) 13. artikuluko 2. puntuaren c) idatz-zatiak xedatzen duenez, diru-sarrerak bermatzeko errenta transferiezina da, eta, horrenbestez, ezin da konpentsatzerik edo deskontatzerik egon, jaso behar ez zirela jasotako prestazioak itzultzeko izan ezik. Horrenbestez, 18/2008 Legeak xedatzen du bidegabe jasotako prestazio gisa zorpetutako zenbatekoak diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrari dagokion kredituarekin konpentsatzeko aukera dagoela.

Xedapen hori garatu egin da Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren arabera; izan ere, dekretu horren 57.5 artikulua honako hau ezartzen du: *“[a]urreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, indarrean dagoen diru-sarrerak bermatzeko errentan hileroko murrizketaren bat edo konpentsazioaren bat egitea erabaki ahal izango du foru-aldundiak ¹ bere kabuz; murrizketa hori interesatuaren bizikidetzaren unitateko edozein kideri dagokionetik egingo luke. Murrizketa edo konpentsazio horrek ezin izango du izan diru-sarrerak bermatzeko errentatik gehienez ere eskuratuko luketenaren % 30 baino handiagoa (betiere inolako baliabiderik ez dagoen kasuan, eta bizikidetzaren unitatean zenbat kide diren kontuan izanik)”*.

¹ Foru aldundiaren aipamen hori Lanbideri dagokiola ulertu behar da, abenduaren 23ko 18/2008 Legea azaroaren 24ko 4/2011 Legearen bitartez aldatu ondoren.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 1/2015 Zirkularrak, bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko baldintzak zehazteari buruzkoak, hilean itzuli beharreko zenbatekoak finkatzeko modua dela-eta zenbait kasu eta jarraibide ezartzen ditu.

Beraz, araudiak konpentsatzeko ahalmena aitortzen du **bakar-bakarrik bidegabe jasotako prestazioak itzultzeari dagokionean, eta horri lotuta nola jokatu behar den arautzen du**. Gorago esan dugunez, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko Dekretuaren (147/2010, maiatzaren 25ekoa) 57.5. artikulua ezartzen du konpentsatutako zenbatekoak ezingo duela gainditu diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoaren % 30. Zenbait irizpide finkatu dira kasuan-kasuan ehuneko hori zehazteko, 1/2015 Zirkularrean adierazitakoaren arabera. Zenbatekoak itzultzeko betebeharra ezartzen duten ebazpenetan, Lanbidek gogorarazten du, halaber, diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako prestazio osagarriaren nomina bidegabe jasotako prestazioaren zenbatekoa konpentsatuz itzuliko direla zenbateko horiek (...) *“hasta que la deuda sea satisfecha en su totalidad. En aquellos meses en que la nómina percibida sea inferior a dicha cantidad, se compensará el total de la nómina percibida. La compensación de la nómina de la deuda se iniciará en la nómina siguiente a la fecha de notificación de esta resolución”*. Horrez gain, hau ezartzen du erakunde horrek: *“si su prestación se extingue o se suspende antes de la compensación total en su nómina, se le comunicará el importe de deuda pendiente de pago, pudiendo efectuar el pago de la misma mediante carta de pago o solicitar su fraccionamiento”*.

Gainera, zehazten du nomina erabat konpentsatu aurretik prestazioa eteten edo iraungitzen baldin bada, interesdunari jakinaraziko zaiola zorraren zer zenbateko duen ordaintzeke, eta hura ordainketa-gutun bidez pagatu ahalko du, edo, bestela, ordainketa zatikatzeke eskatu.

3. Konpentsazioa elkarren hartzekodun eta zordun diren bi pertsonaren arteko betebeharrak betetzeko modu bat da, eta, hari esker, bi zorrak —kasuan-kasuan dagokion zenbatekoa— kitatzen dira, Kode Zibilaren 1.195. artikularekin eta hurrengoekin bat etorritz.

Abenduaren 23ko 18/2008 Legean jaso da betebeharra betetzeko modu hori, **eta berariaz adierazi da nola egin behar den, zehazki, konpentsazioa**.

Arartekoaren iritziz, Diru-Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko araudian jasotako legezko xedapenak aplikatu behar ditu Lanbidek, **eta atzerakinak sortu izanak ezin du ekarri zorra konpentsatzeko beste modu bat ezartzea**.

Izan ere, Arartekoaren ustez, ordenamendu juridikoak ez du behar bezala babesten atzerakinengatik aitortutako zenbateko osoa konpentsatzeko aukera. Arrazoizkoagoa dirudi pentsatzea, zenbateko osoa konpentsatu ahal izateko, araudiak berariaz jaso beharko lukeela aukera hori, hau da, prestazioen onuradunari aitortutako kreditu osoa konpentsatzekoa.

4. Kontuan hartu pertsona horiek ez dutela diru-sarrerarik izan, edo, bestela, zenbait hilabetez izandako sarrerek ez dituztela gutxiengo diru-sarrerak bermatu. Hortaz, aintzat hartu beharra dago litekeena dela zenbait hilabetez behar adina diru-sarrera ez izateak zor batzuk eragin izana, oinarri-oinarrizko gastuak ordaintzeko aukera ez izateagatik. Aukerako berraztertze errekurtsoa baietsi den kasuetan, horri guztiari gaineratu behar zaio, interesdunei prestazioak eten edo ukatu izan ez balizkiete (ondoren, bidegabekotzat jo zen erabaki hori), prestazioa kobratzen jarraituko zuketela, zehaztutako konpentsazioa aplikatuta, legean ezarritako mugak betez. Horrenbestez, Arartekoaren iritziz, kreditu osoa interesdunak duen zorrarekin konpentsatzeak, legean zehaztutako mugak aplikatu gabe, kalte egiten die pertsonari, ez dielako aukerarik ematen likidezia nahikoa izateko, argi badago ere zaurgarritasun-egoeran daudela, eta nahiz eta Lanbideren funtzionamenduak berak eragin duen atzerakinak sortzea. Ikuspuntu horretatik, esan daiteke Lanbideren jokabideak urritasun-egoera eragin diola eskubidearen titularra den bizikidetzaren unitateari, legegilearen asmoa bestelakoa izan arren.

Konparazio gisa, estatu mailako laguntza-prestazioen testuinguruan, jurisprudentzia ugari dago ondorioztatzen duena, aztergai duguna bezalako kasuetan, beharrezkoa dela kotizazio gabeko pentsioen zenbateko garbia errespetatzea beti, hori baita bizirauteko eta bizitzeko gutxieneko ekonomikoa Gizarte Segurantzaren sisteman.

Ikusi, besteak beste, Auzitegi Gorenaren 2016ko maiatzaren 11ko Epaia, 1236/2005 doktrina bateratzeko kasazio-errekurtsoa. Han aztertu da onuradunak zor zituen zenbatekoak konpentsatze aldera erakunde kudeatzaileak prestazioen zenbatekoaren gainean aplikatutako deskontuaren inguruko jurisprudentzia. Halaber, deskontu hori bereizi du Prozedura Zibilaren Legean araututako prestazioen enbargotik (egikaritze-prozesu baten harira egiten da hori). Hemen aipatutako epaiei jarraituz, Gizarte Segurantzaren prestazioen izaera eta soldatena, zehazki lanbide arteko gutxieneko soldatarena (aurrerantzean LGS), desberdinak dira. Hortaz, antzekotasunak aitortzen diren arren, aldeak ere ikusten dira, besteak beste erakunde-eginkizuna eta eskuratze-titulua. Beraz, ez da uste LGSren zenbatekoa prestazioen gutxieneko muga bat denik, kontuan hartuta LGS prestazioen gutxieneko zenbatekoen gaineratik dagoela [epai guztien arabera, 1998-10-14ko epaia (1998, 8668 JB) –4369/97 Errekurtsoa– eta 1998-10-15eko epaia (1998, 8670 JB)].

Gainera, jurisprudentzia hori bat dator prestazioari aplikatutako deskontuak gutxieneko bat errespetatu behar duela dioen doktrinarekin *“... en los supuestos en que (...) resulte un importe neto a percibir inferior a la cuantía, en cómputo anual, de las pensiones de jubilación e invalidez, en la modalidad no contributiva, (...) y siempre que no se perciban ingresos de capital o trabajo personal que excedan del importe fijado (...) para el reconocimiento de los complementos para las pensiones inferiores a la mínima, en modalidad contributiva, la entidad gestora ampliará el plazo (...) para cancelar la deuda en el tiempo que fuera necesario para garantizar, como mínimo, la percepción de la pensión en la cuantía correspondiente a las citadas pensiones no contributivas”* (Auzitegi Gorenaren 30/09/00 Epaia (2000, 9672 JB) – 3441 Errekurtsoa–.

Bestalde, doktrina hori bat dator Konstituzio Auzitegiaren 113/1989 Epaiak [ekainaren 22koa (1989, 113 KAB); 3. oinarria] jasotako irizpidearekin; Arartekoak epai hori aipatu zuen *Diagnostiko txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017*² izeneko agirian, eta, hain zuzen ere, hauxe adierazi zuen: *“[L]os valores constitucionales, que conceden legitimidad al límite que la inembargabilidad impone al derecho del acreedor (...), se encuentran en el respeto a la dignidad humana, configurado como el primero de los fundamentos del orden político y de la paz social en el art. 10.1 de la Constitución al cual repugna (...), que la efectividad de los derechos patrimoniales se lleve al extremo de sacrificar el mínimo vital del deudor, privándole de los medios indispensables para la realización de sus fines personales así como en la protección de la familia, el mantenimiento de la salud y el uso de una vivienda digna y adecuada, valores estos que, unidos a las prestaciones sociales suficientes ante situaciones de necesidad que debe garantizar el régimen público de Seguridad Social, están constitucionalmente consagrados en los arts. 39, 41, 43 y 47 de la Constitución, y obligan a los poderes públicos, no sólo al despliegue de la correspondiente acción administrativa prestacional, sino además a desarrollar la acción normativa que resulte necesaria para asegurar el cumplimiento de esos mandatos constitucionales, a cuyo fin resulta razonable y congruente crear una esfera patrimonial intangible a la acción ejecutiva de los acreedores que coadyuve a que el deudor pueda mantener la posibilidad de una existencia digna”*.

5. Bestalde, Arartekoak pentsatzen du konpentsatzeko hautatu den modua ez datorrela bat zuzenbidearekin; izan ere, horri buruzko aipamen hutsa egin da diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria berrabiarazteko edo aitortzeko ebazpenek duten informazio osoan.

Adierazi dugunez, zenbatekoak itzultzeko betebeharra ezartzea helburu duten ebazpenetan berariaz ezartzen da nola itzuliko den diru hori, eta, horren arabera, diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako prestazio osagarriaren nomina dagokion zenbatekoarekin konpentsatuko da, zorra guztiz kitatu arte. Hori arrazoizkoa da, itzultzeko prozedura bati lotuta dagoelako.

Koherentzia juridikoaren ikuspegitik, ez dirudi konpentsatzeko modurik egokiena denik prestazioak berrabiarazteko edo aitortzeko ebazpenek duten informazio osoan konpentsazioaren aipamen hutsa egitea.

Izan ere, haren legezko oinarria ez dator bat zuzenbidearekin. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (39/2015, urriaren 1ekoa) 98. artikulua honako hau xedatzen du:

“1.Administrazio Zuzenbidearen mende dauden administrazio publikoen egintzak berehala betearaztekoak izango dira, salbu:

² Ondorio horietarako, ikusi *Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017* izeneko agiriaren 96. eta 97. orrialdeak.

- a) Egintzaren betearazpena eteten denean
- b) Zehapen-prozedura baten ebazpena denean, administrazio-bideko errekurtsoren bat jar dakiokena, aukerako berraztertze-errekurtsoa barne.
- c) Xedapenen baten kontrakoa agintzen duenean.
- d) Goragoko onespén edo baimena behar denean.

2. Administrazio-ebazpen batetik edo legeak administrazio-prozedura amaitzeko aurreikusitako beste moduren batetik ordaintzeko betebeharrak bat sortzen denean, diruzko zehapen baten, isun baten edo Ogasun Publikoari ordaindu beharreko beste edozein eskubideren ondorioz, ordainketa hori honako bitarteko elektronikoko hauetako baten bitartez egingo da ahal dela, ezinezkoa dela justifikatu ezean:

- a) Kreditu- eta zorduntze-txartela.
- b) Banku-transferentzia.
- c) Banku-helbideratzea.
- d) Ogasun Publikoaren gaien eskumena duen organoak baimendutako beste edozein."

Artikulu horrek administrazio-egintza baten eraginkortasuna arautzen du. 39/2015 Legearen VII. kapituluak, ebazpenak betearazteari buruzkoan, dago artikulu hori. Administrazio-egintza guztiak bete beharrekoak direla aitortzea eta nahitaez betearazteko bitartekoak arautzea du helburu kapitulu horrek.

Aurreko artikuluak, kapituluari hasiera ematen dionak, hauxe xedatzen du:

97. artikulua: "1. Administrazio publikoek ez dute partikularren eskubideak murrizten dituen jarduketara materialik hasiko erabakiak betearaztean, ez bada aurretik eman jarduketara horren oinarri juridikoa den ebazpena.

2. Ebazpenen betearazte materialerako egintza bat agintzen duen organoa behartuta dago partikular interesdunari jakinaraztera administrazio-jarduketa baimentzen duen ebazpena".

Administrazio-egintzek hartzaileak behartzeko duten ahalmena da betearazpena³. Eraginkortasun-printzipioa eta segurtasun juridikoarena ditu oinarri, eta administrazioak egoera juridikoak sortzeko edo eskubideak alde bakarretik inposatzeko duen ahalean gauzatzen da.

Hauxe dio Konstituzio Auzitegiaren 2. salaren 137/1985 Epaia, urriaren 17koak (10408 LEGEA-JF/0000) bosgarren oinarri juridikoan: «betearazpen orok egintza batean alde aurretik aitortutako eskubide bat baliatzea dakar; egintza horrek, gainera, formalki eta zalantzarik gabe jasota egon behar du, ziur jakin behar da zein diren haren edukia eta hartzailea, haren norainokoari eta hedaturari buruzko alde

³ Jesús María GONZÁLEZ PUEYO "Procedimiento Administrativo Local", 1. argitaraldia, El Consultor de los Ayuntamientos argitaletxea, Madril, 2010eko urria. 19171/2011 LEGEA.



aurretiko interpretazioa dispensatu behar da, eta berehala betearazteko aukera eman behar du, alegia, ezinbestekoa da egintzak "betearazpen-titulua" izatea».

Arartekoak azpimarratu nahi du 39/2015 Legearen 98. artikulua, atzerakinak zorrarekin konpentsatze aldera Lanbidek aipatu duen horrek, administrazio-egintza baten betearazpena arautzen duela. Hala ere, administrazio-egintza bat betearazi ahal izateko, **halaberrezkoa da alde aurretik egintza horren oinarri den ebazpen bat eman izana, eta interesdunari jakinarazi izana, betearaziko den ebazpenaren berri izan dezan.**

Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien 4. salak 1988ko otsailaren 22an emandako Epaiak (1262-4/1988 LEGEA) hauxe dio: *“el principio de la autotutela administrativa lleva consigo, en lo que ahora importa, la potestad de ejecutar forzosamente los actos administrativos -art. 102 de la Ley de Procedimiento Administrativo-. Su actuación exige los siguientes presupuestos: A) Existencia de un acto administrativo que sirva de título para la ejecución -art. 100 de la citada Ley- y del que derive para el administrado la obligación de llevar a cabo una determinada actuación. B) El otorgamiento de la posibilidad de una ejecución voluntaria mediante el previo apercibimiento al obligado -art. 102 de la ya incoada Ley de Procedimiento-. Este apercibimiento, presupuesto de la ejecución forzosa, ha de contener un plazo razonable para la realización de lo ordenado. Si así no fuera, es decir, si fuera imposible ejecutar lo dispuesto dentro del plazo otorgado, el requerimiento, imprescindible para la ejecución forzosa, sería nulo de pleno derecho -art. 47.1.b) de la mencionada Ley”.*

Arartekoaren ustez, 39/2015 Legean jasotako legezko xedapenaren helburua ez da Lanbidek aipatutakoa. Hortaz, ezin da konpentsazioa baliatzeko oinarri juridikotzat hartu, betebeharrak bat iraungitzeko bitartekotzat zorrak eta kredituak tartean direnean.

Bistan da Lanbidek, administrazio-zuzenbidearen mendeko erakunde autonomoa den heinean, betearazteko ahal duela, eraginkortasuna bermatze aldera, (Espainiako Konstituzioaren 103.1. artikulua). *“Administrazio publikoak objetiboki zerbitzatzen ditu interes orokorrak eta efikazia, hierarkia, deszentralizapen, deskonzentrapen eta koordinaketa oinarri lege eta Zuzenbidearen mendera osoaren arabera jokatzeko du”.* Nolanahi ere, administrazio-egintzek berezko duten ahal hori legearen eta zuzenbidearen mende dago, eta, beraz, legeak zehaztutakoari jarraituz gauzatu behar da, eta horrek, ebazpen honek aztergai duen kasuan, hauxe dakar: ezinbesteko izatea betearazpen-titulutzat balio duen administrazio-egintza bat egotea eta hura interesdunari jakinaraztea, arrazoizko epea emanez agindutakoa burutu arte. Beraz, hau da koxka: zer administrazio-egintza betearazten ari da kasu honetan? Lege-erreferentzia hori jaso denez prestazioak berrabiarazteko edo aitortzeko ebazpenetan, logikoa da erantzutea horixe dela betearazten ari den administrazio-egintza. Baina ebazpen horiek eskubideak aitortzen dituzte, eta adierazten dute atzerakinak direla-eta zorrak sortu direla; VII. kapituluak arautzen duen betearazpenak, berriz, partikularren eskubideak mugatzen dituzten ebazpenei eragiten die.





Hori dela tarteko, Arartekoa ez dago ados Lanbidek zorra konpentsatze aldera baliatutako legezko oinarriarekin, eta pentsatzen du ebazpen bat eman beharko litzatekeela, eta, haren bidez, zorrak eta kredituak, dagokien zenbatekoan, iraungitzat jo.

Horri lotuta, bidezkoa da abuztuaren 31ko 212/1998 Dekretua (Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Dirubilketa Erregelamendua onartzen duena) aipatzea.

Erregelamendu horrek arautzen du zer prozedurari jarraitu behar zaion eraginkortasunez betetzeko herri-administrazioaren aldeko erabaki ekonomikoak dakartzaten administrazio-egintzak.

III. kapituluak konpentsatzearen erregulazioa du hizpide.

33.1. artikulua – Konpentsa daitezkeen zorrak. *“1.– Euskal Autonomia Erkidegoaren administrazioaren edo horren erakunde autonomoen aldeko zorrak, atalburu honetan ezarritako baldintzekin, guztiz edo zati batetan indargabetu daitezke konpentsazio bidez. Berdin dio zorrok borondatezko aldian edo aldi exekutiboan dauden. Indargabetu egingo dira, baita ere, zordunaren alde entitate hartzekodunak aitortutako kredituak”.*

34. atala.– Eskumena. *“Zorraren konpentsazioari buruzko erabakia, zordunaren aldeko kredituari darion ordainketa-agindua emateko eskumena duen organoak hartuko du, Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari buruzko Dekretuan eta arau organikoetan ezarritakoaren arabera”.*

38. atala.– Konpentsazioaren ondorioak. *“1.– Konpentsazioaren ebazpenean iraungitakotzat joko dira, behar besteko zenbatekoan, zorrak eta kredituak”.*

Haietatik ondorioztatzen da, administrazioak zorrak konpentsatzen dituenetan, beharrezkoa dela hark aurrez ebazpen bat emanda izatea; ebazpen horren bidez, zorrak eta kredituak iraungitzat joko dira dagokion zenbatekoan.

Horrenbestez, egokia da aipatzea Lanbidek ere ez duela ebazpenik eman hark aitortuta dituen zorrak nahiz kredituak (dagokion zenbatekoan) iraungitzat jotzeko; beraz, Arartekoaren aburuz, legez finkatutako prozedura alde batera utzi da erabat, [39/2015 Legearen 47.e) artikulua].

Finean, aurreko azterketaren arabera, Arartekoak Lanbideren jarduna zalantzan jarri du, hau da, atzerakin gisa sortutako kreditua konpentsatzekoa 18/2008 Legeak nominan deskontu bat eginez konpentsatzeko modu bat ezarri duenean; azken hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 1/2015 Zirkularrak, bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko baldintzak zehazteari buruzkoak, argitu eta zehaztu du. Deskontua partziala izatea eta ez osoa, eragin diezaiokkeen pertsonaltalde bati lotutako arrazoen ondorioa da, beharizan premiazkoenei aurre egiteko diru-sarrerarik ez duena. Konstituzio Auzitegiak zehaztu du gizarte prestazioen



arloan dagoen bizitzeko gutxieneko hori, honako hau adieraziz: ezin duela izan ordaindutakoaren araberakoa ez den prestazioa baino txikiagoa. Nolanahi ere, konpentsazioa ondorio juridikoak dituen betebeharrak bat iraungitzeko modu bat da; beraz, administrazioaren ebazpen baten bidez egin behar da administrazioaren prozedura bat jarraituz.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera

GOMENDIOA

Ondoriorik gabe utz dezala aitortutako atzerakinen zenbateko osoarekiko konpentsazioa, eta Gizarteratzeko eta Diru-Sarrerak Bermatzeko araudian jasotako zenbatekoa bakarrik konpentsa dezala, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 1/2015 Zirkularrean, bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko baldintzak zehazteari buruzkoan, adierazitako legezko mugei eta irizpideei jarraituz.

